



ZAHAR EGOITZAKO LANGILEA ELKARRIZKETA

euskaraz

Sara (izen fiktizioa) Gasteizen jaio zen duela 49 urte. Erizain laguntzaile eta egokitze sozialeko teknikari ikasketak burutu ondoren, urritu fisiko eta psikikoekin lan egiten du Gasteizko zahar egoitzetan. Azaldu digu txikitatik argi izan zuela osasun-sektorearekiko zuen bokazioa, besteak beste laguntzeak baliagarri sentiarazten du eta.

Bere lana erresidentziako erabiltzaileen egunerokotasuneko beharren asistentzian oinarritzen da: behin jaikita, hauen garbitasuna bermatuz hasten dute eguna eta gosaltzera doaz jarraian. Pertsona bakoitzaren gaitasunen arabera, hauekiko laguntza forma aldatzen dela aipatu digu. Egunean zehar entretenimendurako ekintza ezberdinak burutzen dituzte, hauen beharrianak asetzeko jarduerekin tartekatuz. Behin afalduta, pardedak aldatu eta ohean sartzen dituzte. “Egoera fisiko eta psikologiko onean egotea eskatzen du lan honek” dio, erabiltzaileen beharrak asetzeak desgaste mental handia sortzen duela nabarmenduz. Era beran, esfortzu fisikoak ere ondorioak dakartzala dio, ondoez edo lesioen baitako bajak asko izanik.

Azken aldian urteetako esperientzia handiko langileen erretiroa dela eta, pertsonalaren berritze bat eman dela azaldu digu, horrek euskara dakiten gero eta gazte gehiago txertatu baditu ere, langile etorkinen kopurua nabari handitu dela azpimarratuz.

Hurrengo elkarrizketan, COVID-19aren ondorioz osasun krisi gisa izendatu denak lan esparru honetan ekarri dituen aldaketa eta gorabeherak azaldu dizkigu.

Koronabirusaren krisiak aldaketa nabarmenak ekarri ditu gizartean eta konkretuki lan arloan. Zuen lan sektorea “funtsezko zerbitzu” gisa definitu dute. Nola aldatu dira zure lana eta lan baldintzak?

Erresidentzian sartzen garenean sukarra hartzen digute eta aldageletan sartu ahal den pertsona kopurua mugatua da segurtasun distantziak mantendu ahal izateko,

aldageletan jende asko aldatzen baita eta takilak bata bestearen ondoan daudenez, espazioa murrizta da. Behin erabili eta botatzeko eskularru eta oinarrizko maskarilak erabiltzen ditugu. Coronabirusagatik positibo eman duen pertsona bat dagoen eremuetan maskarila profesionalagoak banatzen dira langileen artean, hau da, EPI-ak.

Erabiltzaile bakoitza bere logeletan konfinaturik dagoen heinean, zerbitzu guztiak bertan eman behar dira: gosaria, bazkaria, merienda eta afaria. Honek dakarrena da jan guztia prestatu, eta ondoren bakoitzari bere elikagaiak eraman eta jaso behar dizkiogula. Krisiaren aurretik lan hau beste pertsona batek burutzen zuen baina egoera berriarekin ezin da pasilo eta logeletara sartu, hortaz, guk egin behar dugu, gure lan karga handituz.

Bestalde, lan zaila da erabiltzaileei ulertaraztea ezin direla haien logeletatik irten, kontuan izanda dementzia eta trastorno kognitiboak dituzten sektoreak daudela bertan. Beraz, batzuetan ez dira gai ulertzeko eta ezin dugu ekidin eremu komunitatik paseatzea. Hortaz, etengabe adi egon behar gara haien eremuetatik atera ez daitezen.

Gainera, gure ordutegiak beharren arabera moldatzen dira. Nire kasuan, lanaldiaren %50a egiten nuen lan, baina osasun krisiaren ondorioz lana burutzeko zailtasunak daude, eta nire lanaldia %100era luzatu da egun puntual batzuetan. Ordutegi aldaketak aurrerapen gutxirekin jakinarazten dira. Ondorioz, enpresaren beharretara egokitzeko malgutasuna izan behar dugu: errutina aldaketak eta deskantsurako egun gutxiago.

Gu gara erresidentziako azken katebegia, hau da, mundu guztiak agindu ahal gaitu eta guk men egin behar dugu. Lehen egunak kaos bat izan ziren. Ikuskatzaileak protokolo berria azaltzen zien erizainei, eta ondoren haiek guri, baina hurrengo egunean berriro aldatzen zen protokoloa. Pare bat egun egon ginen egoera honetan. Zer egin genezaken guk? Aginduak bete eta erabiltzaileen kezak jasan. Sindikatu batzuek ere salatu zuten ez zirela neurriak betetzen, baina ulertu behar dena da, agintzea oso erraza dela, baina egoera horri zuzenean aurre egitea ez.

Askok entzun da babes-neurriak lortzeko langileak izaten ari diren zailtasunez. Zuen osasuna bermatzeko zailtasun edo arazorik izan duzue?

Orain arte izan dudana arazoa segurtasun falta izan da. Erabiltzaileekin arazo bat sortzen denean, adibidez, sukarra dutenean, ez dakigu nola jardun. Hasieran kontu handiagoarekin jarduten ginen; soilik pertsona bat sartzen zen erabiltzailearengana, isolatuago zeuden eremu batera mugitzen zen, eta egun batzuen ondoren bere osasuna okertzen ez bazen, berriro bere aurreko eremura eramaten zen.

Testak egitea oso zaila da. Soilik eremu batean egiten dira, positibo eman dutenak eramaten diren lekuan. Positibo eman duten erabiltzaileen eremuetan gabiltzan langileei ez digute testik egin, babesgabe utziz.

Bestalde, transpirablea eta arrunta den mantal bat ipini behar dugu, baina nahikoa ez denez, zakar poltsak jartzen ditugu gainetik. Lanaldi guztian zehar erabili behar dugu amantal bera, oso gutxi baitaude, eta soilik isolatuen dauden erabiltzaileekin kontaktuan dauden langileei ematen zaie.

Hasiera batean, susmatzean norbait kutsatuta zegoela, bere gelara sartu ondoren maskarila bota behar genuen. Hori aldatu egin da, maskarila gutxi baitaude, eta lanordu guztian zehar berdina erabili behar dugu.

Komunikabideetan edota lan egiten dugun tokietan birusari buruz entzuten dugun informazioa egiazkoa den ez dakigu. Izan ere, aipatzen da birusaren sintomak sukarra, eztarriko mina, buruko mina, nekea... direla, baina guk erresidentzian izan ditugun lehen kasuen sintomak goragalea eta beherakoak izan dira. Ondoren sukarra izan zuten, baina ez lehen sintoma bezala. Azken finean, dena nahasia egiten du horrek. Dabilen informazio bonbardaketak psikosis pixka bat eragiten du. Lanorduak amaitzerakoan, eskuak asko garbitzen dituzu (lanordu bitartean ere) eta higiena ere zaintzen duzu. Kutsatuta zaudela pentsatzen duzu, zure ingurukoak kutsatu ahal dituzula, eta estres handia sortzen du horrek. Alkohola ematen duzu gorputz guztitik, dutxatu egiten zara, soilik zure toaila erabiltzen duzu, eztarriko mina duzula uste duzu baina ez da horrela... Informazio faltak eta lan baldintzak eragindako ondorioak.

Lan sektore honi dagokionez, nola ikusten duzu instituzioen partetik ematen diren zerbitzu eta laguntzak? Zein hutsune daude?

Erresidentzian zeuden zerbitzuak (ileapaindegia, podologoa, errehabilitazioa, kanpora irtetzea...) bertan behera gelditu dira, eta erabiltzaile denak haien logeletan gelditu behar dira, lehen azaldu bezala. Materialak hasieratik oso urriak izan dira: maskarila gutxi eta EPlak oraindik gutxiago. Nire kasuan, ez dut hauek izateko aukerarik. Esan didatenez, mantal eta EPlak izateko aukera dute fokoa hasi den eta positiboak eman duten zonaldeetan. Testak ez dira iristen: egun soilik urgentziazko kasuei egin zaie, gainontzeko erabiltzaile edo langileei ez. Material eta segurtasun gehiago beharrezkoak dira.

Nabaritzen da zailtasunak dituztela langile gehiago kontratatzeko, nahiz eta beharra izan, ez baitago nahiko langile eta gainera, nahiago dute erresidentzian dagoen jendearekin soilik lan egin, kanpotik datorren jendeak birusa ekarri ahal duenaren beldur. Ondorioz, bertan gauden langileok lanegun luzeagoak eta funtzio edo eginkizun gehiago ditugu, deskantsu gutxiagorekin. Nik, pertsonalki, eskatzen dudana da nire lanorduak ez luzatzea

%100era eta langile bakoitza eremu batean finkatzea. Behar dutenean lanorduak luzatzen dituzte, ez dutenean behar murriztu, asteburutan errefortzua behar dutenean deitzen gaituzte... komodin eta txontxongilo bat bezala sentitzen naiz. Orain hemen behar zaitut %100ean, orain lehengo ordutegiarekin %50ean, asteburu honetan behar zaitut errefortzu talde honetan goiz eta arratsalde... Langile batzuk, lanaldi-murrizketa dute adingabeak zaindu ahal izateko. Orain, murrizketa horiek kendu dituzte eta %100eko lanaldia burutu behar dute. Nire ustez, murrizketa duen jendea baldin badago, behar dutelako da, eta enpresak jendea behar duenez hauek behartzea ez zait zilegi iruditzen. Langile gehienak bere moduluetan daude, baina gu, errefortzuan etengabe alde batetik bestera gabiltza nahi duten modura, eta orain inoiz baino gehiago. Bestalde, hainbeste lanaldi aldaketekin, nola ordainduko dizkigute ordu guztiak? Oso zaila da dagokigun soldata zein den eta sartu ditugun ordu gehigarrien kopurua neurtzea.

Pertsonalki, uste dut gabezi asko daudela, nahiz eta enpresa publikoa izanik pribatuak baino hobe gaudela esan daitekeen. Gure erresidentziara suhiltzaileak etorri dira pare bat aldiz fumigatzera, eta, nik dakitenez, pribatuetara ez dira joan, eta ez dute testik egin, hildakoren bat egonda ere.